

Erlezaintza Hiztegia



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAIA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Erlezaintza

HIZTEGIA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2019

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren
Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke:

<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia:	I.a, 2019ko abendua
Ale-kopurua:	I.500 ale
© argitaraldi honena:	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet:	www.euskadi.eus/euskalterm
Azala:	Concetta Probanza
Inprimaketa:	C.G. Ganboa, S.L.
ISBN:	978-84-457-3477-3
Lege gordailua:	SS 01287-2019

HITZAURREA

Beste edozein hizkuntza bezalaxe, euskara ere berritzen eta modernizatzen doa egunetik egunera, bizirik dagoen seinale. Bide horretan ezinbestekoa da euskararen aberastasun lexikoa elikatzea, zaintzea eta sustatzea, bai hizkuntza bera normalizatzeko, bai erabiltzaileen premietara egokitzeko. Hain zuzen ere, helburu horiek bete nahian ikusi du argia eskuartearen duzun hiztegi honek, orrialde hauetan jorratzen den eremuko erabiltzaile eta hiztunek lanabes erabilgarria izan dezaten beren egunerokoan.

Hiztegi honetan aurkituko duzun terminologia Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak gomendatutakoa da. Batzordeari dagokio, besteak beste, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egitea, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea, ponderazio-markak finkatuta termino lehiakideen arteko lehentasunak jartzea eta terminoen erabilera onestea eta gomendatzea.

Terminologia Batzordeak onartutako gainerako hiztegiak bezala, hiztegi hau ere EUSKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoan www.euskadi.eus/euskalterm dago integratuta.

Banku hau etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPekin lankidetzan, Eusko

Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina izan dadin. EUSKALTERM metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, betiere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planei jarraituz.

Hiztegi hau erabiltzaileen oinarrizko premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, hemen jorratzen den terminologiaren erabilera normalizatzeko eta gure hizkuntzaren eguneratzearen bidean urrats garrantzitsua izan dadin. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu, euskaldunok gero eta hizkuntza aberatsagoa izan dezagun.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 20a

MIREN DOBARAN URRUTIA

Hizkuntza Politikarako sailburuordea

HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa (www.euskara.euskadi.eus/euskalterm) eguneratzeko eta elikatzeke entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuaren barruan. Kontratua HPSk eta IVAPEk finantzatu dute, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenaren bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak¹ finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehenasunen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa. Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia-batzorde atal bereziak euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengoz, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da. Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia**.

1. 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa.

Hiztegien erabilitako ponderazio-markak:

(4) Termino normalizatua / gomendatua

(3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegien erabilitako laburtzapenak:

eu euskara

es español

fr français

en english

Sin. sinonimoa

Ik. ikus

NORMALIZAZIOA

BATZORDE TEKNIKOA

Arkaitz Rezola (Lorezaintza irakaslea, Fraisoro Nekazaritza Eskola)

Karla Jon Dravasa (Erlezaina, Eltsoko Erlezaintza Museoa)

Begoña Arrate (UZEI)

Koordinatzailea: **Nerea Laskibar** (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

TERMINOLOGIA BATZORDEA

Miren Dobaran Urrutia, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzorde-ataleko lehendakaria

Garbiñe Doval Garcia, IVApeko zuzendariordea, batzorde-ataleko lehendakariordea

Josune Zabala Alberdi, EABko eta batzorde-ataleko idazkaria

Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria

Ibon Olaziregi Salaberria, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria

Xabier Alberdi Larizgoitia, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institututuko ordezkaria

Gotzon Lobera Revilla, Euskaltzaindiaren ordezkaria

Maite Imaz Leunda, IVApeko ordezkaria

Iker Etxebeste Zubizarreta, Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxeko (UZEIko) ordezkaria

Asier Larrinaga Larrazabal, aditua

Alberto Atxabal Rada, aditua

Naroa Gorostiaga Barriola, aditua

Mertxe Olaizola Maiz, aditua

Alfontso Mujika Etxeberria, aditua

Pascual Rekalde Irigoien, aditua

UZEIren LANKIDE IZAN DIREN ADITUAK

Martxel Aizpurua, biologoa eta erlezaina

Miel Loinaz, biologoa eta Nafarroako Erlezainen Elkarteko kidea

EREMU - ZUHAITZA



- 1 Erle eta erle-multzo motak**
- 2 Erlearen gaixotasunak eta etsaiak**
- 3 Erlategiak**
- 4 Erlauntzak, tresnak**
- 5 Lanak**
- 6 Produktuak**
- 7 Erlearen anatomia**
- 8 Erlearen portaera**

AURKIBIDEA



Bokabularioa sailka	13
1. ERLE ETA ERLE-MULTZO MOTAK	14
2. ERLEAREN GAIXOTASUNAK ETA ETSIAK	19
3. ERLATEGIAK	23
4. ERLAUNTZAK, TRESNAK	24
5. LANAK	34
6. PRODUKTUAK	38
7. ERLEAREN ANATOMIA	42
8. ERLEAREN PORTAERA	44
Euskarazko aurkibidea	51
Gaztelaniazko aurkibidea	59
Frantsesezko aurkibidea	67
Ingelesezko aurkibidea	75
Erreferentzia bibliografikoak	83

BOKABULARIOA SAILKA

I. ERLE ETA ERLE-MULTZO MOTAK

1

antzu (4)

- es** estéril
fr stérile
en sterile

2

argizari-erle (4)

- Sin. ezko-erle (4)
 Ekoizten duen argizaria erabiliz
 gelaxkak eraikitzen dituen erle langilea.
es abeja cerera
fr abeille cirière
en wax-making bee; building bee

arraza beltz europar

Ik. erle beltz europar

3

arraza gogor (4)

- Sin. arraza zaildu (4)
es raza rústica
fr race rustique
en hardy breed

arraza italiar

Ik. erle italiar

arraza karniko

Ik. erle karniko

arraza kaukasiar

Ik. erle kaukasiko

arraza zaildu

Ik. arraza gogor

4

bigarren erlekume (4)

- Erle-kolonia batetik urte batean
 lehenengo erlekumearen ondoren irten
 daitekeen erlekumea, lehenengoa baino
 txikiagoa izaten dena eta tartean
 erregina jaioberri bat edo gehiago
 izaten dituena.
es enjambre secundario; jabardo
fr essaim secondaire; reje-ton
en secondary swarm; afterswarm

5

Buckfast erle (4)

- Erle italiarra eta erle beltz europarra
 gurutzatzearen ondorioz sortutako
 hibridoa. Buckfast erlea egokia da
 erlezaintzarako; besteak beste, mantsoa
 delako. Erle autoktonoak desagertu
 diren lekuetan Buckfast erlearekin
 egiten dute lan eta ekoizten dute ez-tia
 erlezainek, baina erle autoktonoak
 dauden lekuetan ere zenbait erlezainek
 egiten dute lan Buckfast erlearekin.
es abeja Buckfast
fr abeille Buckfast
en Buckfast bee

ekotipo

Ik. tokiko arraza

6

emankor (4)

- es** fértil
fr fertile
en fertile

7

erladi biluzi (4)

Salerosketarako prestatutako erlemultzoa, erregina barnean hartzen duena.

es enjambre desnudo

fr essaim nu

en package bees

erlama

Ik. erregina

8

erlamando (4)

Sin. erle nagi (4)

Erle arra, egiteko bakarra erregina ernaltzea duena.

es zángano

fr faux-bourdon

en drone

erlandere

Ik. erregina

9

erlaster (4)

Erlearen familiako intsektua, hura baino handiagoa eta iletsuagoa.

es abejorro

fr bourdon

en bumble bee; humble bee

10

erle (4)

Erle-kolonia bat osatzen duten *Apis* generoko intsektuetako bakoitza.

es abeja

fr abeille

en bee

11

erle atezain (4)

Erlauntzeko atea zaintzen egoten den erlea. Erle horien kopurua aldakorra izaten da, urte-sasoiairean eta uanean uneko arrisku-egoeraren arabera.

es abeja guardiana

fr abeille gardienne

en guard bee

12

erle beltz europar (4)

Sin. arraza beltz europar (4)

Apis mellifera mellifera erle-subespeziea.

Kolore ilunekoa da, eta Alemaniatic Iberiar penintsularaino, Euskal Herria barne, hedatua dago.

es abeja negra europea; raza negra europea

fr abeille noire européenne

en European dark bee

13

erle biltzaile (4)

Sin. erle larrelari (4)

Erle langilea, nektarra, polena, ura, ihintz-eztia eta landare-erretxina biltzera erlauntzetik kanpora joaten dena.

es pecoreadora

fr butineuse

en forager; field bee; foraging bee

14

erle errule (4)

Erregina falta denean erruten hasten den erle langilea.

es abeja ponedora; abeja zanganera

fr abeille pondreuse

en laying bee

15

erle ikuskatzaile (4)

Erle langile zaharra, ezti-garaian loreak edo erlekume-garaian erlauntz hutsak eta abar non dauden bilatzera ateratzen dena.

- es** abeja esploradora
fr abeille éclairceuse
en scout bee

16

erle inude (4)

Erle langile gaztea, larbak elikatzeaz eta zaintzeaz arduratzen dena.

- es** abeja nodriza
fr abeille nourrice
en nurse bee

17

erle italiar (4)

Sin. arraza italiar (4)

Apis mellifera ligustica erle-subespezia.

Kolore horixka du, eta, jatorriz

Italiakoa den arren, gaur egun mundu osoan zabaldu da, egoera puruan nahiz hibridatuta. Berez nahiko mantsoa da, baina zenbait hibrido oso erasokorrak izaten dira.

- es** abeja italiana; raza italiana
fr abeille italienne
en Italian bee

18

erle karniko (4)

Sin. arraza karniko (4)

Apis mellifera carnica erle-subespezia.

Balkanetakoa eta Alpeen parte handi batekoa da, eta oso handia eta mantsoa izaten da.

- es** abeja carniola; raza carniola
fr abeille carniolienne
en Carniolan bee

19

erle kaukasiko (4)

Sin. arraza kaukasiar (4)

Apis mellifera caucasica erle-subespezia.

Oso mantsoa izateaz gain, espezieko arraza guztietan mihi luzeena duena da.

- es** abeja caucásica; raza caucásica
fr abeille caucasienne
en Caucasian bee

20

erle langile (4)

Sin. langile (4)

Ugaltze-organoak partzialki garatuak dituen erle emea, bizitzan zehar zenbait ofizio izaten dituena (inude, atezain, biltzaile eta abar).

- es** obrera
fr ouvrière
en worker; worker bee

21

erle lapur (4)

Sin. lapur (4)

Beste erlauntzetatik ezitia harrapatzen duen erlea.

- es** pilladora
fr pillard
en robber

erle larrelari

Ik. erle biltzaile

erle nagi

Ik. erlamando

22

erle sozial (4)

Koloniak osatzen dituzten Apidae familiako erle-espezietako bakoitza.

- es** abeja social
fr abeille sociale
en social bee

23

erle-kolonia (4)

Sin. kolonia (4)

Elkarrekin bizi diren erleen multzoa, zenbait kasta barnean hartzen dituen (erregina, erle langileak eta erlamandoak).

es colonia de abejas; colonia
fr colonie d'abeilles; colonie
en bee colony; colony

24

erle-nukleo (4)

Sin. nukleo (4)

Erlauntz txiki batean (normalean, 5 koadroduna) artifizialki sortutako erle-talde txikia, kolonia berri bat sortzeko erabiltzen dena.

es núcleo
fr nucléi
en nucleus

25

erlekume (4)

Erregina batekin batera erle-koloniatik irten daitekeen erle-multzoa, beste toki batean kolonia berri bat sortzen duena.

es enjambre de enjambrazón
fr essaim
en swarm

26

erregina (4)

Sin. erlama (4); erlandere (3)

Erle-kolonia batean jaiotzez emankorra den eme bakarra.

es reina
fr reine; mère
en queen

27

erregina birjina (4)

Inoiz ernaldtu ez den erregina.

es reina virgen
fr reine vierge
en virgin queen

28

erregina ernaldtu (4)

es reina fecundada
fr reine fécondée
en fertilized queen

29

erregina errule (4)

es reina ponedora
fr reine pondeuse
en laying queen

30

erregina mandogile (4)

Arrautza ernaldtu gabeak bakarrik erruten dituen erregina. Erregina ernaldtu gabe dagoelako, gaixotu edo zahartu egin delako edo beste arrazoi batzuegatik gerta daiteke hori.

es reina zanganera
fr reine bourdonneuse
en drone-laying queen; drone-breeding queen

ezko-erle

Ik. argizari-erle

31

ezti-erle (4)

Eztia ekoizten duten erle-espezietako bakoitza.

es abeja melífera
fr abeille mellifère
en honeybee

32

hibrido (4)

es híbrido
fr hybride
en hybrid

33

hirugarren erlekume (4)

Erle-kolonia batetik urte batean bigarren erlekumearen ondoren irten daitekeen erlekumea, oso txikia izaten dena eta tartean erregina jaioberri bat edo gehiago izaten dituena. Posible da hirugarren erlekumearen ondoren erle-koloniatik erlekume berriak irteeta.

es enjambre terciario; jabardillo**fr** essaim tertiaire**en** tertiary swarm; afterswarm

34

indize kubital (4)

Apis generoko espezieak eta subespezieak bereizteko erabiltzen den indize morfologikoa, erleen lehen hegoparean neurtzen diren bi distantziaren arteko zatidura dena.

es índice cubital**fr** index cubital**en** cubital index**kolonia**

Ik. erle-kolonia

35

kolonia ahul (4)**es** colonia débil**fr** colonie faible**en** weak colony

36

kolonia basati (4)

Enborrean, paretan, harkaitz-zuloan edo antzekoetan gizakiak erlezaintzarako gobernatua izan gabe bizi den erle-kolonia.

es colonia salvaje**fr** colonie sauvage**en** wild colony

37

kolonia indartsu (4)**es** colonia fuerte**fr** colonie forte**en** strong colony**langile**

Ik. erle langile

lapur

Ik. erle lapur

38

larba (4)

Erlearen garapeneko bigarren fasea, erlea arrautzatik irtetean sortzen dena eta har-itxura izaten duena.

es larva**fr** larve**en** larva

39

lehenengo erlekume (4)

Erle-kolonia batetik urte batean irten daitekeen lehen erlekumea, tartean erregina zaharra izaten duena.

es enjambre primario**fr** essaim primaire**en** prime swarm

40

liztor (4)**es** avispa**fr** guêpe**en** wasp**nukleo**

Ik. erle-nukleo

41

tokiko arraza (4)

Sin. ekotipo (4)

es raza local; ecotipo**fr** écotype**en** ecotype

2. ERLEAREN GAIXOTASUNAK ETA ETSIAIK

42

akariasi (4)

Acarapis woodi akaroak eragindako erle-gaitza.

es acariasis

fr acariase

en acariasis; acarine disease

43

akarizida (4)

Akaroak hiltzeko, haien hazkundera geldiarazteko edo haien presentzia ekiditeko erabiltzen den pestizida.

es acaricida

fr acaricide

en acaricide

44

amebiasi (4)

Gaixotasun kutsagarria, *Malpighamoeba mellificae* espezieko ameba parasitoak eragindakoa, eta erleetan beherakoa eta hesteen handitzea sortzen dituen.

Gaixotasun horrekin kutsatzen diren erleen heriotza-tasa oso altua izaten da.

es amebiasis

fr amibiase

en amoebiasis; amoeba disease

45

antibiotiko (4)

es antibiótico

fr antibiotique

en antibiotic

46

argizariaren sits handi (4)

es polilla mayor de la cera

fr fausse teigne de la cire

en greater wax moth; honeycomb moth

la *Galleria melonella*

47

argizariaren sits txiki (4)

es polilla menor de la cera

fr petite fausse teigne de la cire

en lesser wax moth

la *Achroea grisella*

48

azkonar arrunt (4)

es tejón común

fr blaireau

en European badger

la *Meles meles*

49

barroa (4)

Varroa jacobsoni kanpo-akaroa.

Erle-larbak, ninfak eta erle helduak parasita ditzake.

es varroa

fr varroa

en varroa

50

barroasi (4)

Varroa jacobsoni espezieko akaroak sortutako gaixotasuna.

es varroasis

fr varroase; varroatose

en varroatosis; varroasis

CCD

Ik. erle-kolonien despopulazio-sindrome

51

disenteria (4)

Janari txarrak, estresak, akariasiak eta abarrek eragindako erleen beherakoa.

- es** disenteria
fr dysenterie
en dysentery

52

erle-kolonien despulazio-sindrome (4)

Sin. CCD (4)

Negua heltzen denean erleak erlauntzetik aste gutxitan desagertzea eragiten duen fenomeno. Eztiak eta larbek erlauntzean jarraitzen badute ere, ez da erleen gorpurik ikusten; gaixotasunen kasuan, aldiz, bai.

- es** síndrome de despoblamiento de colmenas; SDC
fr syndrome d'effondrement des colonies d'abeilles; CCD
en bee colony collapse disorder; CCD

53

erle-txori (4)

Sin. erlejale (4)

Merops generoko hegazti-espezia, kolore bizikoa eta erleez eta bestelako intsektuez elikatzen dena.

- es** abejaruco
fr guêpier
en bee-eater
la *Merops apiaster* (L.)

54

erle-zorri (4)

Braula coeca espezieko zorria; erleekin komentsalismoan bizi dena; hau da, erleekin batera bizi da, eta haien elikagaiez elikatzen da. Erreginen eta haien inudeen gainean egoten da batez ere, erreginaren janaria gustatzen baitzaio gehien. Normalean, ez die kalterik egiten erleei, baina, erreginaren gainean 20 zorri edo gehiago badaude, kalteak sortzen dizkiote erreginari eta, ondorioz, baita erle-koloniari ere.

- es** piojo de las abejas
fr pou des abeilles; braule
en bee louse
la *Braula coeca*

erlejale

Ik. erle-txori

55

fungizida (4)

Onddoak hiltzeko, haien hazkundera geldiarazteko edo haien presentzia ekiditeko erabiltzen den pestizida.

- es** fungicida
fr fongicide
en fungicide

56

gaitz beltz (4)

Paralisi kronikoaren birusak sortutako gaitza, erleei bi sindrome-mota eragin diezazkiekeena. I. motako sindromeak erleen paralisia eta heriotza ditu ondorio nagusi. II. motako sindromeak, berriz, erleei kolore beltz distiratsua ematen die hasieran, eta, egun gutxiren buruan, erleek hegan egiteko gaitasuna galdu eta hil egiten dira.

- es** mal negro; mal de los bosques
fr mal noir; mal de forêts
en paralysis during honeydew flow

harrizko ume-sabi

Ik. ume-sabi harri bihurtu

57

intsektizida sistemiko (4)

es insecticida sistémico
fr insecticide systémique
en systemic insecticide

58

kanpo-akaro (4)

Acarapis generoko espezieetako bakoitza. Erleen ektoparasito gisa jarduten dute.

es ácaro externo
fr acarien externe
en external mite

59

kurumino (4)

Sin. liztortzar (3)

es avispon europeo; avispon
fr frelon
en hornet
la *Vespa crabro*

60

liztor asiar (4)

Jatorria Txina inguruan duen liztorra, beste zenbait herrialdetan espezie inbaditzailetzat hartzen dena.

es avispa asiática
fr frelon asiatique; frelon à pattes jaunes
en Asian predatory wasp; Asian hornet
la *Vespa Velutina*

liztortzar

Ik. kurumino

61

loke amerikar (4)

Bacillus larvae bakterioak sortutako gaitza. Bakterioaren esporekin kutsatutako janariaren bidez infektatzen dira erleak.

es loque americana
fr loque américaine
en American foul brood

62

loke europar (4)

Melissococcus pluton bakterioak sortutako gaixotasuna, erle-larbei eragiten diena.

es loque europea; loque benigna; pollo agrio
fr loque européenne; couvain aigre; loque bénigne
en European foul brood

63

maiatzeko gaitz (4)

Ume-sabiaren eta erle inudeen artean desoreka gertatzen denean eta erleek ur eskuragarri gutxi dutenean erleek jasaten duten gaitza. Erle inudeek ohi baino polen gehiago jaten dute egoerari aurre egiteko, baina ur-eskasia dela-eta poleneko toxinak hesteetan pilatzen zaizkie. Ondorioz, erleek paralisia eta bestelako sintomak dakartzan gaitza jasaten dute.

es mal de mayo
fr mal de mai
en may sickness

64

mikosi (4)

es micosis
fr mycose
en mycosis

65

nosemiosi (4)

Nosema Apis espezieko patogenoen esporak erleen hesteetan ugaltzen direnean gertatzen den gaixotasuna, erle helduen galera dakarrena. Neguaren amaieraren eta udaberriaren hasieraren inguruan gertatzen da nagusiki.

es nosemiasis; nosemiosis**fr** nosémose**en** nosema disease

66

pestizidengatikoko intoxikazio (4)**es** intoxicación por pesticidas**fr** intoxication par des pesticides**en** pesticide poisoning

67

sagu (4)**es** ratón**fr** souris**en** mouse**la** *Mus sp.*

68

tximeleta pirata (4)

Acherontia atropos espezieko tximeleta, ezitia jatera erlauntzera sartzen dena.

es esfinge de la calavera; esfinge cabeza de muerto**fr** sphinx tête-de-mort**en** hawk moth; death's head hawk moth

69

ume-sabi harri bihurtu (4)

Sin. harrizko ume-sabi (4)

Aspergillus flavus ondoak sortutako erleen mikosi-mota, hildako larbak gogortuta uzten dituen.

es pollo petrificado; cría petrificada**fr** couvain pétrifié**en** stone brood**ume-sabi igeltsatu**

Ik. ume-sabi kaltzifikatu

70

ume-sabi kaltzifikatu (4)

Sin. ume-sabi igeltsatu (4)

Ascospaera apis ondoak sortutako mikosi-mota, hildako larbak gogortuta eta zurituta uzten dituen.

es pollo calcificado; cría calcificada; pollo escayolado; cría escayolada**fr** couvain calcifié; couvain plâtre**en** chalk brood

71

ume-sabia hozte (4)

Udaberrian ume-sabia behar bezala berotu ezin denean gertatzen den kaltea. Kausak hainbat izan daitezke, eguraldia bat-batean hoztea edo erle-kopurua txikiegia izatea, besteak beste.

es enfriamiento de la cría**fr** refroidissement du couvain**en** brood chilling

72

zaku-formako ume-sabi (4)

Ume-sabiak hiltzen dituen gaitza, *Morator aetatulas* espezieko birusak larbak kutsatzearen ondorioz gertatzen dena. Erle inudeek larbei ematen dizkieten elikagaien bitartez infektatzen dira larbak. Ume-sabia hil arren, birusak erle helduen gorputzetan irauten du, sintomarik sortu gabe.

es cría sacciforme**fr** couvain sacciforme**en** sac brood; pickled brood

3. ERLATEGIAK

73

erlategi (4)

Elkarrekin jarritako erlauntz-multzoaren kokalekua. Kokaleku hori erabakitzeko garaian kontuan hartzen dira eguzkiarekiko orientazioa, lore-aukeraren hurbiltasuna, haizearekiko babesa, ur-eskuragarritasuna eta beste zenbait inguruabar.

es colmenar

fr rucher

en apiary; bee yard

74

erlategi estali (4)

Erlauntzak estalpean kokatuak dituen erlategia.

es colmenar cubierto

fr rucher couvert

en covered apiary

75

erletxe (4)

es abejera

fr rucher pavillon

en beehouse

76

ernalketarako erlategi (4)

es colmenar de fecundación

fr rucher de fécondation

en mating apiary

77

neguko erlategi (4)

es colmenar de invierno

fr rucher d'hiver

en winter apiary

4. ERLAUNTZAK, TRESNAK

78

aireztapen-sareta (4)

- es** rejilla de ventilación
fr grille d'aération
en louver

79

altza (4)

Umetegiaren gainean jartzen diren egituretako bakoitza. Erleek ezta egiten dute altzan, eta ume-sabia umetegitik bertara heda dezakete.

- es** alza
fr hausse
en super

80

altza-erdi (4)

- es** media alza
fr demi-hausse
en shallow super

81

altzentzako eskorga (4)

- es** carretilla para alzas
fr brouette à hausses
en super wheelbarrow

82

argizari-galdara (4)

Sin. ezko-galdara (4)

- es** caldera de cera
fr chaudière à cire
en wax boiler

83

argizari-molde (4)

Sin. ezko-molde (4)

Argizaria urtu ondoren forma emateko erabiltzen den egitura.

- es** molde de cera
fr moule à cire
en beeswax mould

84

argizari-ontzi mokodun (4)

Sin. ezko-ontzi mokodun (4)
 Argizari urtua edukitzeko ontzia, argizarizko orriak koadroan itsatsi behar direnean erabiltzen dena.

- es** alcuza
fr burette à cire
en wax can

85

argizari-xafla estanpatu (4)

Sin. ezko-xafla estanpatu (4)
 Argizarizko orria, koadroen tamainakoa, gelaxka hexagonalen hasikinak mekanikoki ezarri zaizkiona eta, erleek luza dezaten, koadroetan itsastan dena.

- es** lámina de cera estampada
fr feuille de cire gaufrée
en comb foundation; foundation

86

ataka (4)

- es** piqueta
fr porte d'entrée
en entrance door

87

ataka-txikitzeke (4)

- es** reductor de piqueta;
 guardapiquera
fr réducteur d'entrée
en entrance reducer; entrance closer

88

atakako elikagailu (4)

- es** alimentador de entrada
fr nourrisseur d'entrée
en entrance feeder

barne-tapa

Ik. koadro-estalki

89

behaketa-erlauntz (4)

Sin. behaketa-kofoin (4)

Erleek erlauntz barnean duten jarduera ikusteko erabiltzen den erlauntz berezia; alde bat edo gehiago beirazkoak edo plastiko gardenezkoak izaten ditu.

es colmena de observación**fr** ruche d'observation**en** observation hive**behaketa-kofoin**

Ik. behaketa-erlauntz

90

bero-aldera jarritako**abaraskak (4)**

Sin. bero-aldera jarritako orrazeak (4)

Aurreko aldearekiko paralelo jarrita dauden erlauntzaren abaraskak.

Erlauntzaren antolamendu horretan beroa hotz-aldera jarritako abarasketan baino hobeto kontserbatzen da.

es panales a exposición caliente; panales paralelos al frente; batería caliente**fr** bâtisse chaude**en** combs parallel to entrance; warm way**bero-aldera jarritako orrazeak**

Ik. bero-aldera jarritako abaraskak

91

Dadant erlauntz (4)

Sin. Dadant kofoin (4)

es colmena Dadant**fr** ruche Dadant**en** Dadant hive**Dadant kofoin**

Ik. Dadant erlauntz

92

dosifikagailu (4)

Eztia neurri jakinetan banatzen duen gailua.

es dosificador**fr** doseuse**en** bottling machine

93

eguzki-argizarigailu (4)

Eguzkiaren beroa baliatuz abarasken eta operkuluen argizaria urtzen eta biltzen duen tresna.

es cerificador solar**fr** céificateur solaire**en** solar wax extractor

94

elikagailu (4)

Erleei janaria emateko egokitutako ontzia.

es alimentador**fr** nourrisseur**en** feeder**enbor-erlauntz**

Ik. marro

95

erauzgailu erradial (4)**es** extractor radial**fr** extracteur radiaire**en** radial extractor

96

erauzgailu tangential (4)

Koadroak arkua eginez, eta ez erradio eran, jartzeko diseinatua dagoen erauzgailu zentrifugoa.

es extractor tangencial**fr** extracteur tangential**en** tangential extractor

97

erauzgailu zentrifugo (4)

Eztia abaraskak puskatu gabe indar zentrifugoz ateratzeko makina.

- es** extractor centrífugo
fr extracteur centrifuge
en centrifugal extractor

98

erlauntz (4)

Sin. kofoin (4); eultze (4)

Erlekumea hartzeko prestatzen den babesa.

- es** colmena; habitáculo
fr ruche
en beehive; hive

99

erlauntz erledun (4)

Sin. kofoin erledun (4)

- es** colmena poblada
fr ruche peuplée
en populated hive

100

erlauntz laukidun (4)

Sin. kofoin laukidun (4)

- es** colmena movilista; colmena de cuadros móviles
fr ruche à cadres mobiles
en movable-frame hive

101

erlauntz laukigabe (4)

Sin. kofoin laukigabe (4)

Erlauntz-mota zaharkitua, erleek berez erlauntzari finkatuta jartzen dituzten abaraskak dituena.

- es** colmena fijista; colmena de panales fijos
fr ruche à rayons fixes
en fixed-comb hive

102

erlauntz-gorputz (4)

Sin. kofoin-gorputz (4)

- es** cuerpo de colmena
fr corps de ruche
en hive body

103

erlauntzaren oinarri (4)

Sin. kofoinaren oinarri (4)

- es** base de la colmena
fr fond de la ruche
en hive floor

104

erle-burdina (4)

- es** alzacuadros
fr lève-cadres
en hive tool

105

erle-eskuila (4)

Erleak abarasketatik kentzeko erabiltzen den tresna.

- es** cepillo para abejas
fr brosse à abeilles
en beebrush; bee brush

106

erle-ihesgailu (4)

Sin. ihesgailu (4)

Eztia atera behar denean erleak altzatic bidaltzeko erabiltzen den gailua, erleei irteten uzten dien arren sartzea eragozten diena.

- es** escape de abejas; escape
fr chasse-abeilles
en bee escape; escape

107

erleak kentzeko haizagailu (4)

- es** desabejador soplador
fr souffleur à abeilles
en bee blower; beeblower

erlekari-eskularru

Ik. erlezain-eskularru

108

erlekume-otarre (4)

- es** escriño cazaenjambres
fr panier cueille-essaim
en skephive

109

erlekumeak harrapatzeko**erlauntz (4)**

Sin. erlekumeak harrapatzeko kofoin (4)
 Erlekumeak bertan sar daitezen jartzen den erlauntza.

- es** colmena atrapaenjambres
fr ruche attire-essaim
en decoy hive

erlekumeak harrapatzeko**kofoin**

Ik. erlekumeak harrapatzeko erlauntz

110

erlekumeak harrapatzeko**ukendu (4)**

Erlekume-sasoian erlekumeak erakartzeko asmoz kutxak igurtzeko erabiltzen den ukendu usaintsua.

- es** perfume cazaenjambres
fr parfum attire-essaims; parfum attrape-essaims
en swarm-trapping cream; swarm attractor

111

erlekumeak jasotzeko (iz.) (4)

Erlekumea pausatua dagoen lekutik hartzeko erabiltzen den ontzia.

- es** cazaenjambres
fr cueille-essaim
en swarm catcher; swarmcatcher

112

erlezain-eskularru (4)

- Sin. erlekari-eskularru (4)
es guante de apicultor
fr gant d'apiculteur
en bee glove

113

erlezaintzako aseguru (4)

- es** seguro de apicultura
fr assurance apicole
en apiculture insurance

114

ernalketarako erlauntz (4)

Sin. ernalketarako kofoin (4)
 Erreginaren ernalketa lortzeko erlauntz berezia, normala baino txikiagoa izaten dena.

- es** colmena de fecundación
fr ruchette de fécondation
en mating hive

ernalketarako kofoin

Ik. ernalketarako erlauntz

115

erregina jaiotzeko kaiola (4)

Ileko erruloaren antzeko kutxatxoa, barnean erregina-larba gara dadin eta erregina sor dadin erabiltzen dena. Lehendik erregina dagoen erlauntzean erregina berriak sortzeko erabiltzen da. Erregina jaiotzeko kaiola erabili ezean, erregina zaharrak berriak hil egingo lituzke haiek jαιο bezain laster.

- es** jaula de eclosión; rulo
fr cage d'éclosion
en hatching cage; hair roller cage

116

erregina markatzeko**errotuladore (4)**

- es** rotulador marcador de reinas
fr stylo marqueur pour reines
en queen marking pen

117

erregina markatzeko kaiola (4)

- es** jaula para marcar reinas
fr cage à marquer reines
en queen marking cage

118

erregina sartzeko kaiola (4)

Erregina berri bat erlauntzean arazorik gabe sartzeko erabiltzen den kutxa berezia.

- es** jaula de introducción de reinas
fr cage d'introduction
en cage to drive

119

erregina-bereizgailu (4)

Erregina altzara pasa ez dadin jartzen den sare-moduko objektua; erle langileei pasatzen uzten die, baina ez erreginari eta erlamandoei.

- es** excludidor de reinas
fr grille à reine
en queen excluder

120

erreginak markatzeko pintura (4)

Erreginak tanta batekin bizkarrean markatzeko erabiltzen den pintura berezia, urtetik urtera kolore desberdinekoa izaten dena.

- es** pintura para marcar reinas
fr peinture pour marquer reines
en queen marking paint

121

espátula (4)

- es** espátula
fr spatule
en spatula

eultze

Ik. erlauntz

ezko-galdara

Ik. argizari-galdara

ezko-molde

Ik. argizari-molde

ezko-ontzi mokodun

Ik. argizari-ontzi mokodun

ezko-xafla estanpatu

Ik. argizari-xafla estanpatu

122

ezproi (4)

Argizari-xafla estanpatua koadroetako alanbreetan itsasteko erabili ohi den tresna.

- es** espuela
fr éperon
en spur embedder

123

ezproi elektriko (4)

- es** espuela eléctrica
fr éperon électrique
en electric spur embedder

ezti-dolare

Ik. ezti-prentsa

124

ezti-errefraktometro (4)

Eztiaren hezetasuna neurtzeko tresna.

- es** refractómetro de miel
fr réfractomètre à miel
en honey refractometer

125

ezti-iragazki (4)

- es** filtro para miel
fr filtre à miel
en honey strainer

126

ezti-poto (4)

- es** frasco para miel
fr pot à miel
en honey pot; honey jar

127

ezti-prentsa (4)

- Sin. ezti-dolare (4)
es prensa para miel
fr pressoir à miel; presse à miel
en honey press

128

eztionzi (4)

- es** decantador
fr maturateur
en honey tank

129

garraio-kaiola (4)

Erreginak postaz bidaltzeko erabiltzen den kutxa.

- es** jaula de expedición
fr cage d'expédition
en travelling cage

130

haize-babes (4)

- es** abrigo contra el viento
fr brise-vent
en windbreak

131

hegaldi-ohol (4)

Sin. hegaldi-taula (4)
 Erlauntzaren ataka aurrean jartzen den ohola; erleak, kanpotik datozenean, errazago pausa daitezen ezartzen da.

- es** tabla de vuelo
fr planche de vol; planchette de vol
en flight board

hegaldi-taula

Ik. hegaldi-ohol

132

hotz-aldera jarritako**abaraskak** (4)

Sin. hotz-aldera jarritako orrazeak (4)
 Aurreko aldearekiko perpendikular jarrita dauden erlauntzaren abaraskak. Erlauntzaren antolamendu horretan bero-aldera jarritako abarasketan baino okerrago kontserbatzen da beroa.

- es** panales a exposición fría; panales perpendiculares al frente; batería fría
fr bâtisse froide
en combs perpendicular to entrance; cold way

hotz-aldera jarritako**orrazeak**

Ik. hotz-aldera jarritako abaraskak

ihesgailu

Ik. erle-ihesgailu

133

jarabe (4)

Sin. ziropa (4)
 Ura eta azukrea edo ura eta ezta nahasiz egiten den likidoa, urte-sasoi batzuetan erleak elikatzeke prestatzen dena.

- es** jarabe
fr sirop
en syrup

134

kandi (4)

Erleei negurako janari gisa ematen zaien nahaste solidoa; azukrea, ura eta, zenbaitetan, ezta ere nahasiz egiten da.

- es** candi
fr candi
en candy

135

kanpo-tapa (4)**es** techo; tapa exterior**fr** toit; toiture**en** roof of hive

136

ke-hauspo (4)

Hauspo bat erantsita duen metalezko tresna, erleak mantsotzeko erabiltzen dena. Barnean daraman erregaia erreta sortzen den kea barreiatuz lortzen du helburu hori.

es ahumador**fr** enfumoir**en** smoker

137

ke-hauspo babesgailudun (4)**es** ahumador con protección**fr** enfumoir avec protection**en** smoker with safety guard

138

ke-hauspoarentzako erregai (4)**es** combustible para el ahumador**fr** combustible pour enfumoir**en** smoker fuel

139

koadro (4)

Sin. lauki (4)

Argizarizko orri estanpatuak jartzeko behar den lauki erako egitura, normalean egurrezkoa eta alambre paraleloz hornitua.

es cuadro**fr** cadre**en** frame

140

koadro-estalki (4)

Sin. barne-tapa (4)

es cubrecuadros; entretapa**fr** couvre-cadres**en** inner cover; crown board

141

koadro-estalki gaineko elikagailu (4)**es** alimentador de entretapa**fr** nourrisseur couvre-cadres**en** crown feeder

142

koadro-moduko elikagailu (4)

Koadro baten tamainako elikagailua, beste koadroen artean kokatzen dena.

es alimentador de cuadro**fr** cadre nourrisseur**en** division board feeder

143

koadroak altxatzeko kurrika (4)

Koadroak eskuz altxatzeko erabiltzen den tresna, kurrika-egitura duena.

es tenaza levantacuadros**fr** pince à cadres; pince lève-cadres**en** frame grip**kofoin**

Ik. erlauntz

kofoin erledun

Ik. erlauntz erledun

kofoin laukidun

Ik. erlauntz laukidun

kofoin laukigabe

Ik. erlauntz laukigabe

kofoin-gorputz

Ik. erlauntz-gorputz

kofoinaren oinarri

Ik. erlauntzaren oinarri

144

kupula (4)

Erregina-larba sartzeko erabiltzen den plastikozko edo argizarizko kopatxoa.

es cúpula**fr** cupule**en** queen cell cup

145

kupula-euskarri (4)

Erregina-kupula artifizialari eusteko oinarria.

- es** soporte de cúpulas
fr support de cupule
en cell cup holder

146

labana elektriko (4)

- es** cuchillo eléctrico
fr couteau électrique
en electric knife

147

Langstroth erlauntz (4)

Sin. Langstroth kofoin (4)

- es** colmena Langstroth
fr ruche type Langstroth
en Langstroth hive

Langstroth kofoin

Ik. Langstroth erlauntz

148

larbak aldatzeko tresna (4)

Sin. picking (4)

Metalezko ziritxoa, larba txikiak leku batetik bestera mugitzeko erabiltzen dena.

- es** cucharita para trasplante de larvas; picking
fr picking
en transferring tool for larvae

lauki

Ik. koadro

149

lauki-banatzaile (4)

- es** separador de cuadros
fr bande d'écartement
en frame spacer

150

Layens erlauntz (4)

Sin. Layens kofoin (4)

- es** colmena Layens
fr ruche Layens
en Layens hive

Layens kofoin

Ik. Layens erlauntz

151

marro (4)

Sin. enbor-erlauntz (4)

Zuhaitz-enbor hutsarekin egindako erlauntz-mota zaharkitua.

- es** dujo; colmena en tronco de árbol
fr ruche en tronc d'arbre
en log hive

152

mozorro (4)

- es** velo de apicultor
fr voile d'apiculteur
en bee veil

153

mozorro-brusa (4)

- es** blusón de apicultor
fr chemise d'apiculteur; blouson
en beekeeping vest; beekeeping blouse

154

nukleo-kutxa (4)

Erlauntz txikia, abaraska eta erle gutxi dituen eta erreginen hazkuntzan zein erle-ugalketan erabiltzen dena.

- es** colmenita núcleo
fr ruchette à nucléus
en nucleus hive; nucleus box

operkulu-erauzgailu

Ik. operkulu-zentrifugagailu

155

operkulu-zentrifugagailu (4)

Sin. operkulu-erazgailu (4)

es centrifugador de opérculos**fr** centrifugeuse pour les opércules**en** cappings dryer

156

operkuluak kentzeko labana (4)

Eztia atera aurretik operkuluak kentzeko berotuta erabiltzen den labana.

es cuchillo de desopercular**fr** couteau à désoperculer**en** uncapping knife

157

operkuluak kentzeko makina (4)**es** máquina de desopercular**fr** machine à désoperculer**en** uncapping machine

158

operkuluak kentzeko orrazi (4)**es** peine para desopercular**fr** peigne à désoperculer**en** uncapping fork

159

operkuluak urtzeko (4)

Operkuluak urtzeko ontzia.

es fundidor de opérculos**fr** fondoir à opércules**en** capping melter

160

orratz arrabol (4)

Ezti lodia (adibidez, txilarrarena) atera aurretik operkuluak ziztatzeko erabiltzen den arrabol arantzaaduna.

es rodillo picador**fr** rouleau à pointes**en** needle roller**picking**

Ik. larbak aldatzeko tresna

161

polen-lehorgailu (4)**es** secador de polen**fr** séchoir à pollen**en** pollen dryer

162

polen-tranpa (4)

Erleei larretik dakarten polena erlauntzaren sarreran kentzeko erabiltzen den gailua.

es trampa de polen**fr** trappe à pollen**en** pollen trap

163

Porter ihesgailu (4)

Erleei norabide bakarrean soilik pasatzen uzten dien gailua.

es escape Porter**fr** chasse-abeilles Porter**en** Porter escape

164

propoli-sareta (4)**es** rejilla para propóleo**fr** grille à propolis; tapis à propolis**en** propolis screen; propolis mesh

165

sufre (4)**es** azufre**fr** soufre**en** sulphur

166

transhumantzia-atoi (4)**es** remolque de trashumancia**fr** remorque de transhumance**en** trailer for transhumant beekeeping; transhumance trailer

167

transhumantziako erlauntz (4)

Sin. transhumantziako kofoin (4)
Zenbait landare-espezieren loraldiak
baliatu ahal izateko batetik bestera
mugitzen den erlauntza. Erleen
ekoizpena handitzeko erabiltzen da.

es colmena trashumante

fr rucher transhumant

en migratory apiary

transhumantziako kofoin

Ik. transhumantziako erlauntz

168

umetegi (4)

Erlauntzaren atal nagusia, erreginaren
bizitoki dena eta ume-sabia edukitzen
duena; lehenengo gorputza izan ohi da.

es cámara de cría

fr nurserie; chambre à couvain

en brood chamber

ziropa

Ik. jarabe

169

ziztailu (4)

es picadora

fr picoteuse

en honey loosener

170

zumitzezko eta buztinezko erlauntz (4)

Sin. zumitzezko eta buztinezko kofoin (4)

es colmena rústica de mimbre y arcilla

fr ruche d'osier et d'argile

en osier and clay hive

zumitzezko eta buztinezko kofoin

Ik. zumitzezko eta buztinezko erlauntz

5. LANAK

171

abaraskak berritze (4)

Sin. argizari-berritze (4)

es renovación de los panales

fr renouvellement des rayons

en comb renewal

172

aparra kendu (4)

es desespumar

fr écumer; enlever la mousse

en remove froth

argizari-berritze

Ik. abaraskak berritze

173

argizaria urtu (4)

Sin. ezkoa urtu (4)

es fundir la cera

fr fondre la cire

en melt wax

174

desinfektatu (4)

es desinfectar

fr désinfecter

en disinfect

175

elikadura artifizial (4)

es alimentación artificial

fr nourrissement artificiel

en artificial feeding

176

elikadura estimulatzaile (4)

Udaberrian erleen jarduera bizkortzeko ematen zaien janaria. Normalean, jarabe nahiko urtsua izaten da.

es alimentación estimulante

fr nourrissement de stimulation;

nourrissement spéculatif

en stimulative feeding

erle-hazkuntza

Ik. erlezaintza

177

erle-kolonia zatitze (4)

Barnean erle-kolonia bat duen erlauntz batetik bi erle-kolonia edo gehiago sortzeko teknika, erlauntzeko laukiak bitan edo gehiagotan banatzean datzana.

es partición de colmena

fr diviser la ruche

en split hive

178

erle-koloniak batze (4)

es reunir colmenas

fr réunir des colonies

en unite colonies

179

erleak eskulatu (4)

Erleak abarasketatik kendu, eskuila baten laguntzaz.

es cepillar; barrer

fr brosser

en brush

180

erleak kendu (4)

es desabejar

fr chasser les abeilles

en remove the bees

181

erleen hautespen (4)

es selección de las abejas

fr sélection des abeilles

en bee selection

erlekari

Ik. erlezain

erlekaritza

Ik. erlezaintza

182

erleketa (4)

Basora ezta biltzera joatea.

- es** recolección de miel silvestre
fr chasse-cueillette du miel sauvage
en wild honey collection

183

erlezain (4)

Sin. erlekari (4)

Erlezaintzan aritzen den pertsona.

- es** apicultor
fr apiculteur
en beekeeper

184

erlezaintza (4)

Sin. erlekaritza (4); erle-hazkuntza (4)

Ezti-erleak gobernatzeko zientzia eta praktika.

- es** apicultura
fr apiculture
en beekeeping; apiculture

erlezaintza ibiltari

Ik. transhumantzia

185

erlezaintza-intereseko landare (4)

- es** planta de interés apícola
fr plante d'intérêt apicole
en plant of interest to beekeepers

186

erregina markatze (4)

- es** marcaje de la reina; marcado de la reina
fr marquage des reines
en queen marking

187

erregina-aldaketa (4)

Erregina zaharra kentzea, eta haren lekuan berria sartzea.

- es** cambio de reina; reemplazo de la reina
fr remplacement de la reine; remérage
en requeening

188

erregina-gelaxkak txertatu (4)

- es** injertar celdas reales
fr greffer des cellules royales
en graft larvae

189

erregina-hazkuntza (4)

Erreginak artifizialki hazteko teknika.

- es** cría de reinas
fr élevage de reines
en queen rearing; queen breeding; queen raising

190

erreginak sartze (4)

- es** introducción de reinas
fr introduction des reines
en queen introduction

191

erreginak sartzeko prozedura (4)

- es** procedimiento de introducción de reinas
fr procédé d'introduction de reines
en queen introduction procedure

192

erreginen intseminazio artifizial (4)

- es** inseminación artificial de las reinas
fr insémination artificielle des reines
en queen artificial insemination

193

errutearen blokeo (4)

Erreginak erruteari uztea edo gutxiago errutea (naturalki edo artifizialki).

- es** bloqueo de la puesta
fr blocage de la ponte; blocage du couvain
en restriction of brood rearing

194

etiketatu (4)

- es** etiquetar
fr étiqueter
en label

ezkoa urtu

Ik. argizaria urtu

eztia ateratze

Ik. eztia erauzte

195

eztia biltze (4)

Uzta-garaian eztia erlauntzetik biltzea.

- es** cata; recolección de miel
fr récolte du miel
en honey harvest

196

eztia erauzte (4)

Sin. eztia ateratze (4)

Eztia abaraskatik ateratzea.

- es** extracción de la miel
fr extraction du miel
en honey extraction

197

eztia iragazi (4)

- es** filtrar la miel
fr filtrer le miel
en strain honey

198

eztia krematu (4)

- es** cremar la miel
fr rendre le miel crémeux
en cream honey

intsuldatu

Ik. ontziz aldatu

199

kea eman (4)

- es** ahumar
fr enfumer
en smoke

200

koloniak itotze (4)

- es** asfixia de las colonias
fr asphyxie des colonies
en colony asphyxiation

201

koloniak zatitze (4)

- es** división de las colonias
fr division des colonies
en colony division

202

kristalak ereite (4)

- es** siembra de cristales
fr ensemencement
en seeding

203

kristalizazio gidatu (4)

- es** cristalización dirigida
fr cristallisation dirigée
en directed crystallization; targeted crystallization

204

landare ezti-emaile (4)

- es** planta melífera
fr plante mellifère
en nectar plant

205

menda (4)

Erlekumeak erakartzeko asmoz erlauntza barnetik igurzteko erabiltzen den landarea.

es menta**fr** menthe**en** mint**la** *Mentha sp.*

206

ontziz aldatu (4)

Sin. intsuldatu (4)

Erle-kolonia bat erlauntz batetik bestera pasarazi.

es trasegar; transvasar**fr** transvaser**en** transfer

207

operkuluak kentze (4)**es** desoperculación**fr** désoperculation**en** uncapping

208

prentsatu (4)

Abaraskak estutu, ezta ateratzeko.

es prensar**fr** presser**en** press

209

transhumantzia (4)

Sin. erlezaintza ibiltari (4)

Erlezaintza nomada, loraldien arabera erleak leku batetik bestera eramanez egiten dena.

es trashumancia; apicultura nómada**fr** transhumance; apiculture pastorale**en** transhumance; migratory beekeeping

6. PRODUKTUAK

ainar arruntaren ezti

Ik. txilar arruntaren ezti

ainar-ezti

Ik. txilar-ezti

210

akazia-ezti (4)**es** miel de acacia**fr** miel d'acacia**en** acacia honey

211

alergia (4)**es** alergia**fr** allergie**en** allergy

212

analisi fisiko-kimiko (4)**es** análisis físico-químico**fr** analyse physico-chimique**en** physico-chemical analysis

213

analisi poliniko (4)**es** análisis polínico**fr** analyse pollinique**en** pollen analysis

214

apiterapia (4)

Erleen produktuak baliatuz egiten den terapia. Apitoxina (erleen pozoia), ezti, propolia, erregina-jelea edo polena erabiliz egin ohi da.

es apiterapia**fr** apithérapie**en** apitherapy

215

argizari (4)

Sin. ezko (4)

es cera**fr** cire**en** wax

216

basoko ezti (4)

Sin. oihaneko ezti (4)

Lore-eztia eta mielato-eztia nahasian dituen ezti.

es miel de bosque**fr** miel de forêt

217

erle-arto (4)

Sin. erle-ogi (4)

Erleek polena eta ezti geraxketan geruzatan tartekatuta bildu ondoren nahaste horren hartzidura laktikoa gertatzen denean sortzen den produktua.

es pan de abeja**fr** pain d'abeille**en** bee bread**erle-ogi**

Ik. erle-arto

218

erle-pozoi (4)**es** veneno de abeja**fr** venin d'abeille**en** bee poison

219

erregina-jele (4)

Erle inudeen guruin hipofaringeoan jariaikin zuria; erle inudeek erregina elikatzeke erabiltzen dute, baita erle langileen eta erlamandoen larbak hasierako garapen-faseetan daudenean elikatzeke ere.

es jalea real
fr gelée royale
en royal jelly

220

ezaugarri organoleptiko (4)

Produktu batek zentzumenen ikuspegitik dituen ezaugarriak.

es característica organoléptica;
 atributo organoléptico
fr caractéristique organoleptique
en organoleptic characteristic

ezko

Ik. argizari

221

ezti (4)

Erleek abarasketan gordeta edukitzen duten elikagaia, erleek nektarra edo landareen ezti-ihintza xurgatu, eraldatu, abarasketan gorde eta heltzen uztearen ondorioz sortzen dena.

es miel
fr miel
en honey

222

ezti abaraskadun (4)

Sin. ezti orrazedun (4)

Abaraska eta guzti saltzen den ezti.

es miel en panal
fr miel en rayon
en comb honey

223

ezti hartzitu (4)

es miel fermentada
fr miel fermentée
en fermented honey

224

ezti krematsu (4)

es miel crema
fr miel crèmeux
en creamed honey

225

ezti lorebakar (4)

Erleek batez ere landare-mota bakarraren nektarra bilduz sortzen duten ezti. Euskal Herrian ekoizten diren ezti lorebakar arruntenak erromeroarena, eukaliptoarena, gaztainarena, ezkairena, izpilikuaena, txilarrarena, akaziarena, koltzarena eta ekilorearena dira.

es miel monofloral
fr miel monofloral
en monofloral honey

226

ezti operkulatu (4)

Erlauntzean abaraska operkulatuetan dagoen ezti.

es miel operculada
fr miel operculé
en capped honey

ezti orrazedun

Ik. ezti abaraskadun

227

ezti-ardo (4)

Eztia eta ura hartzitez sortzen den edari alkoholduna.

es hidromiel
fr hydromel
en mead

228

ezti-ihintz (4)

Zenbait landare-organoren gainean (hostoetan bereziki) aurki daitekeen likido azukretsua; jatorriz, landare-zorrien irazkina edo landarearen berezko exudatua izan daiteke.

es mielada; melazo**fr** miellat; miellée**en** honeydew

229

eztialdi (4)

Eztia edo polena biltzen den sasoa.

es mielada**fr** miellée**en** honey flow; nectar flow

230

eztialdi nagusi (4)

Ezti edo polen ugarien biltzen den sasoa.

es mielada principal**fr** grande miellée**en** main flow

231

eztiaren pasteurizazio (4)**es** pasteurización de la miel**fr** pasteurisation du miel**en** honey pasteurization**ihintz-ezti**

Ik. mielato-ezti

232

lore anitzeko ezti (4)**es** miel multifloral**fr** miel polyfloral**en** multifloral honey; polyfloral honey

233

lore-ezti (4)**es** miel de flores**fr** miel de fleurs; miel de nectar**en** flower honey; blossom honey**lore-hauts**

Ik. polen

234

mielato-ezti (4)

Sin. ihintz-ezti (4)

Erleek ezti-ihintzaz baliatuz ekoizten duten eztia.

es miel de mielada**fr** miel de miellat**en** honeydew honey

235

nektar (4)

Landareek ekoizten duten likido azukretsua; loreetan edo loreetatik gertu kokatutako nektar-guruinetan jariatzen da, eta erleek eztia ekoizteko erabiltzen dute.

es néctar**fr** nectar**en** nectar**oihaneko ezti**

Ik. basoko ezti

236

polen (4)

Sin. lore-hauts (4)

Loreen anterek edo kono maskulinoek askatzen duten hautsa, barnean gameto ar bat duten ale txikiez osatua dagoena.

es polen**fr** pollen**en** pollen

237

polen-pilota (4)

Erleek hanketako polen-saskian bildutako polen-multzo trinkoa.

es pelota de polen; polen corbicular

fr pelote de pollen

en pollen pellet; pollen load

238

propoli (4)

Erleek landare-erretxina bildu eta listuarekin nahasi ondoren sortzen duten gai eranskorra; erleek erlauntzeko zuloak ixteko erabiltzen dute, baita substantzia antiseptiko eta bakterizida gisa ere.

es propóleo

fr propolis

en propolis

239

txilar arruntaren ezti (4)

Sin. ainar arruntaren ezti (4)

es miel de brecina

fr miel de callune

en heather honey

240

txilar-ezti (4)

Sin. ainar-ezti (4)

es miel de brezo

fr miel de bruyère

en heather honey

7. ERLEAREN ANATOMIA

241

abdomen (4)

- es abdomen
fr abdomen
en abdomen

242

aho-pieza (4)

- es pieza bucal
fr pièce buccale
en mouthpart

243

antena (4)

- es antena
fr antenne
en antenna

244

argizari-guruin (4)

- Sin. ezko-guruin (4)
es glándula de la cera; glándula cerera
fr glande cirière
en wax gland

245

baraila (4)

- es mandíbula
fr mandibule
en mandible

246

baraila-guruin (4)

- es glándula mandibular
fr glande mandibulaire
en mandibular gland

247

espermateka (4)

- es espermateca
fr spermathèque
en spermatheca

ezko-guruin

Ik. argizari-guruin

248

ezten (4)

- es aguijón
fr aiguillon
en sting

249

guruin (4)

- es glándula
fr glande
en gland

250

hanka (4)

- es pata
fr patte
en leg

hegal

Ik. hego

251

hego (4)

- Sin. hegal (4)
es ala
fr aile
en wing

252

ile (4)

- es pelo
fr poil
en hair

253

mihi (4)

- es lengua
fr langue
en tongue

Nasonov-en guruin

Ik. usaimen-organo igorle

254

obariolo (4)

es ovariolo

fr ovariole

en ovariole

255

omatidio (4)

